

ZUMARRAGAN EGINDAKO EUSKAL **JAIK (1899)**

XIX. mendean, erromantizismoaren eraginez, tokian tokiko kulturaren eta berezitasunen aldeko kontzientziak indar handia hartu zuen.

Espania mailan Katalunia izan zen aitzindari, eta mendea aurrera joan ahala, penintsulako beste herrialde batzuetan ere bertako kultura eta hizkuntzak bultzatzeko gogo indar hartzen joan zen.

Euskal Herrian ere laister piztu zen kultur gogo hura, Pirinioen bi aldeetan gainera, eta kultur oinarri zaharrak berreskuratzeko ahaleginak sortu ziren. Horrela, 1853. urtean, Antoine Abbadiak lehenengo Euskal Lore-Jokoak antolatu zituen Urruñan.

Dena dela, mugimendu hark XIX. mendearen bukaeran hartu zuen garrantzia, probintziako erakundeen babespean.

Mende bukaera hartan Gipuzkoako Probintzia-Diputazioak urtero antolatu zituen Lore Jokoak, Katalunian egiten zituztenen eredua jarraituz (horretarako Donostian “Donostiako Euskal-Itz Jostaldien Batzarra” eratu zuen).

Lore Joko haietan garrantzi berezia izan ohi zuten euskal literaturako lehiaketek, bai poesiakoek bai prosakoek (musika lehiaketak, bertsolariak, nekazaritzako lehiaketak edota elizkizunak ere izan ohi ziren), eta urtez urte probintziako herri banatan antolatu ohi ziren. Lehenengoak 1882an Donostian egin zituzten, Jose Manterolaren eraginez; 1897an Oiartzunen; 1898an Zestoan eta 1899an Zumarragan, XVIII. Lore Jokoak egin ziren, irailaren 17an, 18an eta 19an.

Baina “Donostiako Euskal-Itz Jostaldien Batzarra” ez zuen dena antolatzen. Tokian tokiko herriak, Lore Jokoek irauten zuten hiru egunak ospatzeko ekitaldi osagarriak antolatzeko aukera izaten zuen.

Ekitaldi osagarri horiek antolatzeke aukera zela eta hainbat eta hainbat ikuskizun antolatzeke eskari jaso zituen Udalak; suzko festak, bihurrikatzaileen erakusketa, Gipuzkoako sagardo eta txakolinaren erakusketa,...

Lehiaketak egiteke baimen eskariak ere izan ziren: gaitajole-dultzainajoleen lehiaketa egiteke eskaria, Bizkaiko aurreku lehiaketa egiteke, Gipuzkoako aurreku lehiaketa, edo aizkora apustuak, eta abar.

Baina Udala ez zen proposamenak jaso zain geratu: udal musika bandaren ekitaldiak antolatu zituen, dantzari txikienak (hamabi mutil eta hamabi neskako taldeak prestatzeke Andoaingo Jose Ansa kontratatu zuen Udalak, Ordiziako José Lorenzo Pujana eta Justo Irastorza dantza maisuak baino egokiagoa zelakoan, maiatzaren 6an Udal Batzarrak egindako bileraren agirian jasota dagoenez), dantzari profesionalen erakustaldia, irrintzi lehiaketa, jauzi lehiaketa, puntu egileen lehiaketa eta ibiltarien lasterketa.

Jaiei dagokienez, lehenengo egunean, irailak 17, Aldundiak antolatutako nekazal eta abere-lehiaketa egin zen (sariak egun berean banatu ziren). Ondoren egin ziren Udalak antolatutako lehiaketa eta ekitaldi guztiak irailaren 18ko arratsaldean eta 19ko eguerdi artean.

Lehenengo lehiaketa, eta irailaren 18an egin zen lehiaketa bakarra Gipuzkoako aurrekulariena izan zen, hirurogei eta berrogei pezetako bi sarirekin. José Lorenzo Pujana, Hilarión Atorrasagasti, José Ansa eta Rafael Aguirre dantzariak izan ziren partaide.

Hurrengo egunean egin zituzten gainerako lehiaketak:

- Korrikalariak: bost korrikalari (hogei, hamabost eta hamar pezetako hiru sari)
- Saltokariak: sei saltokari (hogei, hamabost eta hamar pezetako hiru sari).
- Aizkolariak: enbor haundiak, lau aizkolari (ehun eta hirurogeita hamar pezetako bi sari); enbor txikiak, lau aizkolari (hirurogeita hamar eta berrogei pezetako bi sari).

Lau probintzietako dultzainajoleen lehiaketa izan zen parte-hartze haundienekoa, zazpi talde, eta guztira hamalau pertsonak parte hartu baitzuten. Miguel de Arenaza alkateak eskatuta, Pedro Larrañaga,

Alberto Garaizabal eta Ignacio Busca Sagastizabal izan ziren epaimahaiko, azken hori epaimahaiburu zela.

Puntu egileen lehiaketak sari xumeagoak izan zituen, hamabost, hamar eta bost pezetako hiru sari hain zuzen, eta bertan bost pertsonen parte hartu zuten.

Bizkaiko aurrekularien lehiaketan Durangoko hiru parte hartzailek eman zuten izena; hirurogei eta berrogei pezetako bi sari banatu ziren.

Irrintzilarien lehiaketak, aldiz, lau parte hartzaile izan zituen.

Zoritxarrez, ez daukagu sariak zeinek irabazi zituzten argitzen lagunduko digun agiririk.

“Donostiako Euskal-itx jostaldien Batzarreak” antolatutako kultur lehiaketei dagokienez, literatur txapelketetan, ondorengo sariak izan ziren:

a) Prosaz eta gipuzkeraz “Zumarragako herriaren historia goraipagarriari eta bertako seme ospetsuei buruz” egindako lanen lehiaketa, irabazlearentzako laurogei pezetako saria eta diploma zituena. Irabazlea Ignacio Belaustegi izan zen, “Zumarraga-ko erri baita ere bere seme ospatsuben kondaira eta doaiak” lanarekin.

b) Euskarazko poesia lehiaketa, laurogei pezetako saria eta diploma zituena, Victoriano Iraolarentzat izan zen, “Ama baten negarra” lanarekin. Juan Ignacio de Urangaren “Enadaen elkartasun maitatiya” lanak akzesit bat jaso zuen, berrogeita hamar pezetakoa eta diploma.

c) Hamabost urtetik hogeita hamar urtera bitarteko irakurleentzako lehiaketa ere egin zen, berrogeita hamar pezetako sari bat eta diploma zituena, gipuzkeraz nahiz epaimahaikideek eskatutako beste euskalki batetan, euskarazko poesia eta prosa interpretatu eta mintzatzeko. Hogeita hamar pezetako akzesita eta diploma emateko aukera ere bazegoen. Ez dugu, tamalez, irabazleen berririk.

d) Zumarragako antzinako elizari buruzko (Antioko Amaren eliza esanda ezagutzen dena) monografia egiteko lehiaketa, prosaz eta gipuzkeraz, ehun pezetako saria eta diploma zituena. Irabazlea Ignacio Belaustegi izan zen “Antigua-ko Eleizachoaren kondaira” lanarekin. Dena

dela, eta nahiz eta lehiaketak zuen saria ehun pezeta eta diplomakoa izan, Belaustegik berrogeita hamar pezeta eta diplomako saria jaso zuen.

e) Antzezlan lehiaketa, gipuzkeraz, bertsoz edo prosaz idatzia, umorezko gaia nahiz bestelakoa, ehun pezetako saria eta diploma zituen. Berrogeita hamar pezeta eta diplomako akzesita emateko aukera ere bazegoen.

Beste sari batzuk ere eman zituzten, hala nola, ordu laurden batez, euskeraz ondoen irakurri eta idazten zuten neska - mutilei marrazteko kutxatilkak, edo antzeko opariak.

f) Abesbatza lehiaketa ere egin zen, lau ahotsetako gizona abesbatzarik onenarentzako ehun pezetako saria eta diploma eskainita. Originaltasuna eta euskal kutsua kontuan hartuko ziren sariduna erabakitzeko.

g) Euskal zortzikoen lehiaketa ere egin zen danbolinjole talde osoarentzat (bi txistu danborrarekin, silbotea eta atabala) idatzitako jatorrenarentzat, laurogei pezetako saria eta diploma eskainita.

h) Azkenik, musika arlo honetan, zortziko hori ondoen joko zuen danbolinjole taldeen lehiaketa egin zuten. Sariak: ehun pezeta eta diploma (hirurogei pezetako akzesita eta diploma emateko aukera ere bazegoen).

“Donostiako Euskal-itx Jostaldien Batzarreak” bertsolarien jaialdi bat ere antolatu zuen bi onenei berrogei pezetako sari bana eskainita.

Antolatzaileek prestatutako oinarrien arabera, lehiaketa horietara aurkeztutako lanak postaz bidali behar ziren, abuztuaren 15a baino lehen “Batzarreko” idazkaria zen Antonio Arzaken eskura iritsi zitezten. Epaimahaia berriz, Batzarreko kideek osatuko zuten, eta musikako lehiaketetako ospe haundiko hiru euskal musikaririk. Epaimahaien erabakien aurka egiteko aukerarik ez zen izango.

Jakina, danbolinjoleen lehiaketarako izena emanda zuten taldeei, garaiz helaraziko zitzaizkien saritutako lanak, hartara prestatzeko aukera izan zezaten.

Izandako gastuei dagokionez, berak antalatutako ekintzen gastuak ordainduko zituen Aldundiak, eta Udalak ekitaldi osagarrien gastu nahiz jai horiek egiteko antolaketa gastuak (udaltzainei zegozkienak, gizalanak,

behartsuei emandako laguntza-bonoak, arku loredun batenak, su festenak, udal musika bandarenak, dantzari txikienak, horiei erakusteko kontratatutako maisuarenak, oholtzarena, eta abar).

Osotara, nahiz eta Zumarragako udalak lau mila pezetako aurrekontua aurrikusi zuen, likidazioa egin ondoren Zumarragak ordaindutakoa lau mila seirehun eta hiru pezeta eta hogeita bost zentimo pezetako kopurua izan zen, kontuan hartu gabe, artean, egun horietan argindarretan gastatu zena, ohizkoa baino argi gehiago izan baitzen kaleetan.

ZUMARRAGAKO UDAL ARTXIBOA